



URUMEAKO Kronika

2017/01/24

**HERNANI** Urtarrilak 24

Argazkia: SAGARDOAREN LURRALDEA

[albisteak/SAGARDOAREN LURRALDEA](#)

Txotx denboraldia aurkeztu dute aurrenekoz Fitur Azokan, sagardoaren kultura zabaltzeko

Madrilgo Fitur Azokan izan da Sagardoaren Lurraldea, Gipuzkoako Sagardogileen Elkartearekin, Gipuzkoa Turismorekin eta Basquetourrekin batera. Sagardoaren munduari lotutako turismo eskaintza zabaltzeko da, eta Euskadiko Museo Enogastronomikoekin bat eginda, lau ibilbide ere sortu dira, txotx denboraldiaz gain, sagardoaren kulturaz gozatzeko.

Kronika**ASTIGARRAGA**

2017/01/21 00:00 Larunbata

Turismoa erakartzen du sagardoak; horren dudarik ez dago. Sagardoaren Lurraldeak emandako azken datuen arabera, 2016an 12.000 bisitari baino gehiago izan dira Sagardoetxea Museoan, eta sagardotegietara joateko 3.500 erreserba inguru kudeatu dituzte.

Aurten, gainera, pausu bat aurrera egin du Sagardoaren Lurraldeak; pasa den asteazken honetan Madrilgo Fitur Azokan izan da aurrenekoz Joxe Mari Alberro, Sagardoaren Lurraldeko ordezkari gisa, eta bertan izan dira, baita ere, Gipuzkoako Sagardogileen Elkartea, Gipuzkoa Turismo eta Basquetour. Helburua, garbia; turismoaren merkatuan ezagutzera ematea, sagardoa eta sagardoaren kultura. Hori horrela, txotx denboraldi berria iragartzeaz gain, turismoari begira sortu diren eskaintzen berri ere eman zuten.

Gastromuseums, marka berria

Eskaintza berri horietako batzuk bildu dituzte, esaterako, Gastromuseums markaren barruan. Euskadiko Museo Enogastronomikoek egin dute bat marka honen bueltan, eta lau ibilbide sortu dituzte, Euskal Herriko ohiturak eta zaporeak gertutik ezagutzeko. Horietako hirutan dauka sagardoak protagonismoa: Txotxaren ibilbidean, Sagardoa eta Idiazabal gaztaren ibilbidean eta azoka tradizionalen ibilbidean. Beste ibilbide batean, Arabar Errioxako ardoa ezagutzeko aukera eman nahi izan da.

Sagardoaren Lurraldetik atera gabe

Baina Sagardoaren Lurraldetik gehiegi aldendu gabe ere, hainbat modu daude, sagardoaz gozatzeko. Horietako hainbat eskaintza lehendik ere martxan jarriak dauzka Sagardoaren Lurraldeak: Sagardoetxea Museoa ezagutzea; Museora bisita sagardotegi bateko otorduarekin borobiltzea; sagardotegi bat ezagutzeaz gain, gaztandegi bat ere bisitatzea... Baina horrez gain, aukera berriak sortu ditu aurten: sagardotegia bisitatzeaz gain, talasoterapia zirkuitu bat egin eta Donostia ezagutzea; sagardotegi bat eta Sagardoetxea Museoa bisitatzeaz gain, itsasoarekin lotura daukan museoren bat ere bisitatu eta barkuan ibilaldia egitea; sagardotegi batean bapo egin aurretik Santiomendiko mendi ibilbideren bat egitea...

Nork bere kabuz gozatzeko ere, milaka aukera

Baina guztia ez da erreserbatu beharrik. Ezaguna da paraje hauek kirolerako aukera paregabea ematen dutela, eta Sagardoaren Lurraldeak hainbat proposamen egiten ditu, nork bere kabuz probatu ditzan.

Aukera dago, adibidez, mendi ibilbideak egiteko Santiomendiko Sagardo Bidean zehar. Bestalde, mendiko bizikletan ibiltzea gustuko duenak, Usurbil-Andatzako ibilbidea probatu dezake, eta errepideko bizikleta nahiago duenak, sagardoaren lurraldean zehar ibilbide zirkularra egin dezake. Trail runnigerako, berriz, Adarran gora lasterka igotzea izan daiteke aukera bat.

Guztiak debalde egin daitezke, bakoitzak nahi duenean. Eta nahi izanez gero, noski, egindako ahalegina saritzeko, sagardotegi batean borobildu dezake eguna! Informazio gehiago:

sagardoarenlurraldea.com.

SAGARDOAREN LURRALDEA

SAGARDOAREN KULTURAKO ESKERIENTZIA TURISTIKOAK

SAGARDOETXEARA BISITA

- Sagastia, museo-gunea eta dastaketa. Prezioa: 3,50 eurotik aurrera.

MUSEOA + SAGARDOTEGIA

- Sagardoetxeara bisita eta sagardotegi batean otordua. Prezioa: 33 euro.

SAGARDOTEGIA

- Txotxaren errituaz eta sagardotegiko ohiko menuaz gozatzeko aukera, Sagardoaren Lurraldeko edozein sagardotegiten. Menua: bakailu tortila, bakailu frijitua piperrekin, txuleta eta gazta, intxaur eta irasagarrarekin. Prezioa: 30 eurotik aurrera.

SAGARDOA ETA GAZTA

- Euskal Herriko zaporea ezagutzeko planak: museoetara bisita (Sagardoetxea eta Gaztaren Interpretazio Zentroa), gaztandegietara bisitak eta sagardotegiak. Prezioa: 34,50 eurotik aurrera.

ASTEBURU GASTRONOMIKOA

- Ongizatea eta gastronomia bat eginik: Sagardoetxeara bisita, otordua sagardotegian, talasoterapia zirkuitua eta pintxoen ibilbidea, Donostia ezagutuz. Prezioa: 110 euro.

SAGARDOA ETA ITSASOA

- Euskal sagardoa eta itsasoaren arteko lotura ezagutzeko aukera: museoetara bisita (Sagardoetxea eta Aquariuma edo Albaola), ibilaldia itsasontzian Donostian edo Pasaian, eta otordua sagardotegian. Prezioa: 56 euro.

SAGARDOTREKKING

- Santiomendiko Sagardo Bidean ibilbide gidatua, oinez edo bizikleta elektrikoan. Prezioa: 25 eurotik aurrera.

TXOTX IN SUMMER

- Trikitixarekin eta kantu herrikoiekin alaitutako sagardotegietako otorduak, taldeentzako.

ERRESERBAK EDO INFORMAZIO GEHIAGO:

943 550 575 / www.sagardoarenlurraldea.com

SAGARDOETXEA MUSEOA

EUSKADIKO MUSEO ENOGASTRONOMIKOEN SAREAN

TXOTXAREN IBILBIDEA

- Ezkio-Itsasoko Igartubeiti Baserri Museoan bisita gidatua, Astigarragako Sagardoetxea Museoan bisita eta dastaketa eta Astigarragako sagardotegi batean bazkaria. Goizeko 10:00etatik aurrera (6 ordu). Prezioa: 45 euro.

SAGARDOA ETA IDIAZABAL GAZTAREN IBILBIDEA

•Ezkio-Itsasoko Igartubeiti Baserri Museoan bisita gidatua, Ordiziako sagardotegi batean bisita gidatua eta bazkaria, Idiazabalgo Gaztaren Interpretazio Zentroan bisita gidatua eta gaztandegira bisita, ikusentzuneke proiektzioa ikusi eta gazta dastatzeko. Goizeko 10:30etatik aurrera (9 ordu).
Prezioa: 47 euro.

AZOKA TRADIZIONALEN IBILBIDEA

•D'Elikatuz Elikadura eta Gastronomia Zentrora bisita gidatua, asteazkenero Ordizian egiten den azokara bisita, Ordiziako sagardotegi batean bazkaria eta Idiazabalgo Gaztaren Interpretazio Zentrora bisita, gazta, txakolin edo ardo dastaketarekin. Goizeko 10:30etatik aurrera (6 ordu). Prezioa: 45 euro.

ARABAR ERRIOXAKO ARDOAREN IBILBIDEA

•Goardiako Ardoaren Gune Tematikora bisita, 'Ametsen Lurraldean' 4D esperientzia eta ardo dastaketa, erretegi batean bazkaria eta El Fabulista upategira bisita. Eguerdiko 12:00etatik aurrera (6 euro). Prezioa: 47 euro.

INFORMAZIO GEHIAGO:

943 88 22 90 / www.gastromuseums.com



[Txiokatu](#)



Izena*

Eposta helbidea*

Iruzkina*

Captcha*